

## Munduaren hasieraz

ESTEBAN ANTJUSTEGI

Izarren hautsa, egun batean, bilakatu zen bizigai. Hauts hartatikan, ustekabea, noizpait ginaden gu ernai...” dio oso maite dudana abestiak, era poetikoan gizakion sorreraren misterioa adierazi nahian, ene ustez.

Noizbait, batek daki, tximutik edo, Neardenthal eta Cromagnonen arteko konpetentzia gaindituz, gizakiak bere ibilbideari hasiera eman zion. Belak zabaldu eta, haizea aldeko, etorkizunerantz zuzendu zuen branka. Batzuetan, haize ezti eta iraunkorra lagun, besteetan, hodei beltzez inguratutik, uhin izugarrien menpe aritu izan da. Dena den, ez da okerren moldatu beste izakien aldean.


Benetan mirezgarria bizitzaren misterioa, espezien eboluzioa, kulturaren eraikuntza edo ugaritasunaren bilakera. Gizakia ere harat-hunat ibili da historiaren zurrumbilo horretan. Horrelako aipamenek gure ahuleziak ohartarazi eta jakinmina sortzen duten gai korapilatsuen aurrean jartzeko gaituzte, gogoeta frankora eramanez gaitzakeen galderekin topo egitera bultzatuz.

Ariketa modura, ez legoke gaizki ezinbestean jaso dugun ondareaz gehiago ohartuko bagina, eta horrek helarazten duen iraganari sarriago erreparatuko bagenio. Esaterako, galdetzen badiogu geure buruari gutariko bakoitzaren existentziak, edota, orain garena izateko eman behar izan ziren aldagai guztiek gogoeta egingo bagenu... zer erantzuko genuke? Zaila benetan. Txunditzea baino ez zaigu gelditzen, harridura sentitu. Harridura, ezaguera guztien jatorria.

Gizakia, osotasunean edo gizabanako bezala hartuta, bere amets, desio, desplazera, gorroto, amodio, beldur, grina eta abarrekin ez da perfektua. Baina ez dugu besterik, eta, ezertarako ere, berarekin kontaktu beharrean gaude. Historia luzea, desberdina, jatorri bera dugun arren.

Arrazoa eta pasioa biltzen dituen gizaki honek, bestalde, ongi frogatu du elkarlanean aritzeko abilezia. Gizon eta emakumeek proiektu amankomunak sarritan eraiki dituzte, ingurunea bereganatuz eta gertakariei erantzunak bilatuz. Hortaz, gizakiak, mendez mende, unibertso sinbolikoak antolatzeke gauza izan dira, besteekin konpartituz eta lehena etorkizunarekin uztartuz.

Paregabea benetan bi hitz horien bidez osatu dugun elkarte berria. Alde batetik unibertsoa daukagu, hitz boro-bila berau, ia dena adierazten duena. Bere barnean galaxiak, izarrak, planetak, *big bang* leherketa, Lurra eta ilargia bera ere aurki genitzake. Hitz gutxi daude hain



Mikel Laboa, zuzeneko emanaldi batean / JESÚS URIARTE

aberatsak. Grezia zaharreko Urano handia, aita Zeru gure artean. Baina bere adiskidea ez da gutxiagorako. Magia eta misterioaren bidez adierazten zaigun sinboloa ere, zeinu bilakatuz, beste zerbait irudikatzeke eta hausnarketara bultzatzeko aproposa agertzen zaigu.

Ez dago inor, ezta talderik ere, bere nortasuna sostengatzen duen imajinarioa aldarrikatu eta defendatzen ez duenik. Komunitate batek ezin dio bere izaerari uko egin, eta bakoitzaren berezitasuna defendatzeko eskubidea oinarritzko balore demokratikoa izan behar da. Hala ere, portaera honek ezin ditu beste ikusmoldeak ezkutatu eta aintzakoztat hartu ez. Aniztasunak konpromisoa eskatzen du eta guztiok eroso sentitzea bultzatu beharra dago, jarrera baztertzailak zokoratuz. Bestela, norgehiagoka anker batean murgilduz, borroka imajinarioaren gurgil eroan ondora gaitzake. Adibideak ez ditugu falta: sua piztea erraza da, zailago itzaltzea.

Herri haserre honetan ez dira falta unibertso sinbolikoak, baina tamalgarriena da denon artean minimo batzuk ez aurkitu izana. Bestalde, polita litzateke partaide-tzan oinarritutako proiektuak bideratzen saiatzea. Aniztasunetik abiatu eta, bakoitzari zor zaion errespetuan oinarrituz, gehiengoaren onerako akordioak lortzeko gai izan. Gizakiak, nahi duenean, ezagutzen du elkarrizketaren balorea. Baina, uhinek arroken kontra bezala, ametsek erreallitate gordinaren aurka hausten dira behin eta berriro. Bitartean, bakoitzak bere berezitasunarekin unibertso bat egiten jarraitzen du, unibertso osoan hauts-izpi bat baino ez garenean.